

Artikulugileak gai hau jorratzean bi aspektu nagusi jorratu ditu: batetik, turismoak Bertizen duen edo izan dezakeen eragin soziokultural eta soziolinguistikoaren inguruko hausnarketa burutzea eta euskarari zer nolako mesedeak ekar diezazkiokeen aztertzea; eta bestetik, euskara eta bertako kultura zertan izan daitezkeen turismoaren lagungarri aztertzea, zer turismo mota eragin dezaketen aurreikustea eta interbentziorako iradokizun zehatzak eskaintzea.

TURISMOAK EUSKARARI ZER? EUSKARAK TURISMOARI ZER? (BERTIZKO PARTZUERGOAREN KASUA)

Kike Amonarriz
Siadeco Ikerketa Taldeko kidea

I.- SARRERA

Honako artikulua hau, Elizondon eta Donezteben emandako hitzaldi batzuen moldaketa da. Hitzaldi horiek Bertizko Partzuergo Turistikoak hartzen dituen eskualde eta udalerrietako euskaltzaleei eta turismo alorrarekin zerikusia zuten pertsoneri zuzendu zitzaizkien. Artikuluan zehar azaltzen diren ideiak eta eskaintzen diren iradokizunak beraz, zonalde hau dute gogoan, eta ezingo lirateke bere horretan eskaini beste testuinguru batzuetan.

Gai hau jorratzean, bi aspektu nagusi jorratu nahi izan dira:

- Turismoak Bertizen duen edo izan dezakeen eragin soziokultural eta soziolinguistikoaren inguruko hausnarketa burutzea eta euskarari zer nolako mesedeak ekar diezazkiokeen aztertzea.

- Euskara eta bertako kultura zertan izan daitezkeen turismoaren lagungarri aztertzea, zer turismo mota eragin dezaketen aurreikustea eta interbentziorako iradokizun zehatzak eskaintzea.

Garbi dago gaia konplexua dela, eta lerro hauek hurbilketa xume bat besterik ezin dutela izan, azterketa zabalagorik gabe. Gaiak gainera alderdi asko ukitzen ditu: ekonomia, zerbitzuen antolaketa, kultur eta hizkuntz

politika, heziketa... Hitzaldi batek beraz, ezin dezake guzti horretan sakondu, hausnarketarako bideak azaldu baizik.

Izenburuari erreparatzen badiogu, bi elementu aipatzen direla jabetuko gara: turismoa eta euskara, baina ondoren ikusiko dugun bezala, elementurik garrantzitsuenak, elementu giltzarria aipatzeke utzi dugu nahita: elementu hori «gu geu» gara.

Gaia jorratzerakoan beraz, honako hiruki hau izango dugu gogoan:

Euskara Turismoa Gu

Turismoak eta euskarak izan dezaketen harremanaren inguruan zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta garbiago geratzen da, bi gai horien inguruan martxan jarritako politikek azken batean oinarri eta ikuspegi berberak dituztela. Bi muturrak aipatzearen: ongi sustraituriko herri proiektu bat aurrera eramatea ala herrigintzarekin zerikusirik ez duen ikuspegi ekonomizista huts baten alde egitea.

Gaian barrena abiatzen garen neurrian beraz, gero eta ageriago geratuko zaigu, turismoarekiko nahiz hizkuntz normalizazioarekiko jarreraren oinarriak eta abiapuntuak berberak direla:

- Gure baitan zentraturiko ikuspegia ala kanpoko haizeek moldaturiko kokapena.
- Gurean erroturik mundura zabaldu ala munduari begira deserrotu.
- Gunetik periferiarako ikuspegia ala periferiatik gunerako ikuspegia.

1.1.- GUTXI JORRATURIKO GAIA

Euskara eta iharduera ekonomikoen arteko dibortzioa nabarmena da: lan munduan eta iharduera ekonomikoetan euskararen presentzia oro har oso eskasa da, eta gutxi dira hizkuntz normalizazioari serio heldu dioten alorrrak edo enpresak. Lan munduko mikroplangintzak eta merkataritza alorrean euskararen erabilpena sustatzeko bideratzen hasi diren ekimenak alde batera utzita, Euskal Herri osoko ikuspegi batetik, esparru sozioekonomikoaren hizkuntz normalizazio prozesua hastapenetan aurkitzen dela esan beharko genuke.

Turismoaren gaia ez da bereziki landu hizkuntz ikuspegi batetik, beti ere «kanpoko» jendearekin loturiko ihardueratzat hartu delako eta hizkuntzaren ahalmen turistikoei buruzko ekimenik ia ez delako sortu.

Sektore euskaltzaleen gainera, turismoa, euskalgintzarako kaltegarritzat edo arriskugarritzat jo izan dute sarri. Edo kasurik onenean ere, gaiak kezka sortu ohi ditu, herri nortasunaren garapenaren ikuspegitik: Baztan, Malerreka eta Bortzirietan kezka hau sortu izana da adibide bat, Iparraldeko turismo-ereduaren ondorio soziokulturalak gertu ditugu, etab.

Kezka hau ez da Euskal Herrira mugatzen. Balearreetan esate baterako, Menorcako turismo-ereduak, «balearizazioa»ri muga estuak jarri nahi izan

«Turismoak eta euskarak izan dezaketen harremanaren inguruan zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta garbiago geratzen da, bi gai horien inguruan martxan jarritako politikek azken batean oinarri eta ikuspegi berberak dituztela. Bi muturrak aipatzearen: ongi sustraituriko herri proiektu bat aurrera eramatea, ala herrigintzarekin zerikusirik ez duen ikuspegi ekonomizista huts baten alde egitea»

«Euskara eta iharduera ekonomikoen arteko dibortzioa nabarmena da: lan munduan eta iharduera ekonomikoetan euskararen presentzia oro har oso eskasa da, eta gutxi dira hizkuntz normalizazioari serio heldu dioten alorrak edo enpresak»

dizkio, tartean arrazoi sozio-kulturalak ere egonik (beste batzuen artean). Hamarkada honen hasieran eztabaida sutsuak izan ziren bertako erakundeetan eta prentsan, jarraitu beharreko turismo ereduari buruz, askoz ere turismo «kontrolatuagoaren» aldeko apostua egin zutelarik.

Kulturen «folklorizazio turistikoa»ri buruzko kezkek eta iritziak ere hainbat herritan topa daitezke. Bidaia antolaturen bat egin dugun guztiok badakigu zein alde haundia dagoen, bertoko kulturak ezagutzearen eta turistentzat prestaturiko «jaialdi folklorikoen» inguruan.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago turismoa eta hizkuntz normalizazio prozesuak lotzen dituzten esperientziak edo bibliografia oso-oso urriak direla.

II.- ZER DA TURISMOA?

Turismoa egiteko moduak, denboraldiak, lekuak, garraioak, etab. asko aldatu dira eta ari dira aldatzen. Duela urte batzuk «oporak» askoz ere homogeneoagoak ziren urte garai zein bidaien helmuga aldetik.

Gaur egungo turismo-joerak aztertzerakoan ordea, askoz ere aldagai gehiago hartu behar ditugu aintzat:

- Urte garaia: uda, aste santua, negua, urtean zeharreko aste-buruak...
- Denboraldia: egun bat, asteburua, udako egonaldi luzeagoak...
- Barne-vs. kanpo-turismoa (ez ahaztu «Veranee en Euskadi» slogan famatu hura).
- Helburua: eguzkia, lasaitasuna, gastronomia, bestak, artea, natura, kultura (gure herria ezagutu).

Ezin dugu ahaztu komunikabideen eta garraioen hobekuntzak distantziak laburtu egin dituela, aisialdia erabiltzeko ohiturak asko aldatu direla eta bidaien prezioak ere merketu egin direla. Batetik bestera mugitzen direnak beraz, ugaldtu egin zaizkigu. Baina nola definituko genituzke pertsona horiek?

Bisitari, bidaiari, turisten arteko aldeaz asko eztabaida liteke eta segurasiki ez genuke muga garbirik aurkituko. Are gehiago, pertsona berbera bidaia baten barruan, batzuetan turista bilaka daiteke, beste batzuetan bisitari eta baita bidaiari ere une batzuetan.

Artikulu honetan ez gara eztabaida horretan sartuko baina esan dezagun, gure ikuspegitik, funtsezko aldea bisitatzen diren lekuetako kulturekiko hurbiltze-mailan egon dagoela, eta 3 kontzeptu horien artean, bidaiariak lehenetsiko genituzkeela. Turismo ekolinguistikoaren alde egingo genuke beraz.

Euskal Herrian esate baterako, asko dira, beste herrietako besta, egun berezi edo kultur ekintzetara espreski doazenak. Bertizko esparruan, Baz-

tandarren Biltzarra, edo Zubieta eta Iturengo Ihauteriak adibide esanguratsuak dira.

III.- TURISMOA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

Aisialdia eta honen barruan turismoa gero eta iharduera ekonomiko garrantzitsuagoak dira. Gaur egun, «mundu guztia» mugitzen da.

Helburu turistikoak definitzerakoan ordea, «eskaintza turistikoa» ere landu egin behar da.

Eskaintza eta eskaeraren arteko erlazioa oso aintzat hartu behar da.

Turismoaren/garapen ekonomikoaren eta zonaldearen kultur eta hizkuntz garapenaren arteko harremanak baldintzatzen dituen faktore asko aurki dezakegu. Azken batean, zer eskatzen dute hona datozenek? Zer eskaintzen zaie hona datozenei?

Galdera hauen inguruan lan-ardatz hauek zabal daitezke:

- Bertizko Partzuergo Turistikoa eskaintza turistikoaren nondik norakoak. Gaur egungoak, sor daitezkeenak, etab.
- Bertizko Partzuergo Turistikoa eremuko dinamika soziokultural eta soziolinguistikoa (bereziki hizkuntz normalizazio-prozesua). Zer ari gara egiten? Zer egin asmo dago?
- Bertizko Partzuergo Turistikoko dinamika soziokultural eta soziolinguistikoa eskaintza turistikoaren garapenak izan dezakeen eragina. Oso era desberdinetakoa izan baitaiteke.
- Proiektu soziokulturala eta Partzuergoko sektore turistikoa norabide berean uztar ditzateketen eragile ekonomikoak eta kulturalak.

Turismoa, bertako komunitatearen bizi baldintzak hobetzeko ona den neurrian eta bertako kultur eta hizkuntz ezaugarriak errespetatzen dituen neurrian, oso elementu egokia izan daiteke bertako hizkuntz komunitatearen garapenerako eta trinkoketarako: gazteen emigrazioa ekiditeko, lanpostuak sortzeko eta baita bestela bideragarriak izango ez liratekeen kultur proiektuak garatzeko.

Baina kontrakoa ere lor dezake: bertako indarrak ahuldu eta kanpoko interesen menpe uztea. Aukeratzen den ereduan dago gakoa.

IV.- BERTARATZEN DIREN TURISTEN EZAUGARRIAK

Ikus dezagun ondoren, zeintzuk diren Bertizko Partzuergora hurbiltzen diren bisitarien ezaugarriak. Azalduko ditugun datuak bertako turismo-bulegoetatik pasa diren pertsonen dagozkie, eta beraz:

- Pentsa liteke kanpotarren proportzioak altuagoak izango direla datuotan, errealitatean baino (gertuko bisitarien normalean informazio gutxiago behar dute eta beraz barne-turismoaren proportzio minimoak

«Turismoaren gaia ez da bereziki landu hizkuntz ikuspegi batetik, beti ere “kanpoko” jendearekin loturiko ihardueratzat hartu delako eta hizkuntzaren ahalmen turistikoari buruzko ekimenik ia ez delako sortu»

«Sektore euskaltzaleenek gainera, turismoa, euskalgintzarako kaltegarritzat edo arriskugarritzat jo izan dute sarri. Edo kasurik onenean ere, gaiak kezkak sortu ohi ditu, herri nortasunaren garapenaren ikuspegitik: Baztan, Malerreka eta Bortzirietan kezka hau sortu izana da adibide bat, Iparraldeko turismo-ereduaren ondorio soziokulturalak gertu ditugu»

izan daitezke ondoren azalduko ditugunak).

- Lehen aldiz edo aspaldi etorritakoen presentzia ere handiagoa izango dela aurreikus daiteke (ohizko bisitariak ez dira aldioro turismo-bulegoetatik pasatzen).

Ohar horiek egin ondoren ikus ditzagun datuak:

BERTIZERA DATOZEN TURISTEN JATORRIA

Oro har ondorio hauek azpimarra daitezke:

- Euskal Herriko turismoa nagusitzen da (barne-turismoa, ale-gia). Urtean zehar turismo-bulegoetatik pasatzen diren hiru pertsonatik bi hegoaldekoak dira.

- Katalaneraz mintzo diren herrialdeetatik datozen turisten proportzioa altua da. Proportzio hauen arabera katalaneraren erabilpena interesgarriagoa gerta daiteke, beste hizkuntza batzuen bano.

- Estatutik kanpoko turisten proportzioa oso txikia da: Frantziako estatutik datozenak %5 eta horietatik kanpo % 3 besterik ez.

Datu hauek bestalde, 3 epe bereiz genitzake:

a) Abuztua: kataluniarrak eta estatuko enparaukoak (madrildarrak gehienak) dira nagusi. Euskal Herriko turistak (turismo bulegoetatik pasatzen diren artean), lautik bat dira.

b) Aste-santua/uztaila: barne-turismoa nagusi da, baina Kataluniatik eta estatuko enparautik ere kopuru altua hurbiltzen da (bostetik bi).

c) Urtean zehar: barne-turismoa nagusi da, kataluniarren presentziarekin.

Turisten presentzia bestalde urte osoan zehar barreiatzen da. Normalean hilabeterik turistikoena den abuztuak % 20 baino hartzen ez duelarik. Aspektu hau garrantzitsua da, urtean zeharreko planteamendua batez ere barne-turismoari zuzendu beharko litzaiokeelako, eta kanpoko turismoaren eragina oso fokalizatuta dagoelako denboran. Ikuspegi linguitikotik ere, bi epe nagusi horiek bereiztu litezke.

Turista hauen ezaugarriak buruzko daturik ez izan arren, hipotesi batzuk luza genitzake:

- Bertizera hurbiltzen den turismoak oro har, bertoko kulturarekiko eta bere gaur egungo adierazpenekiko jarrera irekia eta interesatua izan dezake. Aukeratzen duten lekuak berak mugatu egiten du bisitariaren tipologia.

- Turismo mota honek, hizkuntzaren aldagaiari balio erantsia eman diezaike edo gutxienez, oro har, ez du hizkuntzaren erabilpena errefusatuko. Haurrak euskalduntze prozesuan dituzten familiek balio erantsitza har dezakete eta baita Kataluniatik hurbiltzen direnek ere.

- Erdaldunen eta kanpotarren artean ere, oro har, hizkuntzare-

kiko sentiberatasun minimoa aurreikus liteke, edo gutxienez, gaiaren inguruko informazio egokia luzatu beharko litzateke.

- Turismo kataluniarrarekiko planteamendu berezia landu beharko litzateke. Informazio eta sustapen-plangintzetan katalaneraren erabilpena bermatu egin behar da. Izan ere, beste estatuetatik datozen pertsona guztien proportzioa bikoiztu egiten baitute beraiek bakarrik.

— Edozein kasutan eta planteamendu zehatzagoetara iristeko, komenigarria litzateke honako aspektu hauek ere aztertzea.

- Bisitarien adina.
- Hizkuntzen ezagupena: euskara, gaztelania, katalanera, frantsesa, ingelesa...
- Bisitaren iraupena eta maiztasuna.
- Bidaiaren helburuak, bidaiaren gustoak...
- Taldearen ezaugarriak: familia, bikotea, lagunartea...
- Garraio-mota.
- Aurretik zonaldeari buruz zuten informazioa.
- Inbertsio ekonomikoa.

V.- BERTIZKO ERAKARGARRITASUN LINGUISTIKOA

— Euskaldunen portzentaia altua da zonaldean. Nafarroako zonalde euskalduneko eskualderik euskaldunenetakoak biltzen dira bertan. 1991ko zentsuko datuen arabera, honako hauek dira euskaldunen proportzioak:

- Malerreka: %87
- Bortzirikiak: %80
- Baztan: %79

— Barne turismo euskaldunari begira bestalde, zonaldeak baditu berezko elementu erakargarriak:

- Euskarazko kultur produkzio aberatsa:

— Komunikabideak: «Ttipi ttapa» aldizkaria eta «Xorroxin» irratia.

— Euskal besta garrantzitsuak: Ihauteriak, Baztandarren Biltzarra...

— Euskarazko kultur zerbitzu eta ekintzak: euskaltegiak, Barnetegia, emankizunak...

- Bertako hizkeren aberastasuna eta erakargarritasuna.
- Iparraldearekiko gertutasuna.
- Usadio eta tradizio aberastasuna: abestiak, bestak, dantzak, leku «enblematikoak»...

«Turismoa, bertako komunitatearen bizi baldintzak hobetzeko onaden neurrian eta bertako kultur eta hizkuntz ezaugarriak errespetatzen dituen neurrian, oso elementu egokia izan daiteke bertako hizkuntz komunitatearen garapenerako eta trinkoketarako: gazteen emigrazioa ekiditeko, lanpostuak sortzeko eta baita bestela bideragarriak izango ez liratekeen kultur proiektuak garatzeko. Baina kontrakoa ere lor dezake: bertako indarrak ahuldu eta kanpoko interesen menpe uztea. Aukeratzen den ereduan dago gakoa»

«"Hizkuntz paisaia" euskalduna eskaini bisitariari, zonaldean sartu orduko, euskaraz mintzo den zonalde batean dagoela garbi ikus dezan. Ahalegin berezia egin beharko litzateke errotulazioan eta eskaintzen diren zerbitzuetako ahoz nahiz idatzizko harremanetan (Turismo Bulegoak berak, ostalaritza, establezimenduak,...): menuak, foiletoak, harrera, ...»

— Nafarroako testuinguruan, zonalde misto eta erdaldunetako familiek euskal kulturarekin eta euskararekin ukipen sendoa eduki nahi badute, aukera ezin hobea eskaintzen die zonalde honek. Oso zonalde euskalduna da, bizia eta gainera Iruñerriarekin ongi lotua.

VI.- ESTRATEGIA POSIBLEAK

— Turismoa eta hizkuntz normalizazio prozesua uztartuko litzuketen estrategiak diseinatu eta gauzatzea ez da lan sinplea. Hala ere lan-ardatz posible batzuk aipatuko ditugu iradokizun gisa.

A). ZONALDEAREN SUSTAPEN-IMAJINA:

— Zein da zonaldeak kanpoan eskaini nahi duen imajin linguistikoa?:

- Sustapen turistikoa: kartelak, liburuskak, informazio-orriak...
- Turistei ahoz nahiz idatziz eskaintzen zaien informazioa (bulegoa, feriak, etab.).

— Aspektu eta elementu guzti hauetan, hizkuntzari dagozkion bi alderdi segurtatu behar dira:

- Euskararen erabilpen normalizatua elementu guztietan.
- Zonaldearen ezaugarri soziolinguistikoei buruzko oinarritzko informazioa.

— Ezin dugu ahaztu hala ere, gure hizkuntz normalizazio proiektuaren helburua, euskara bertoko jardueretako ohizko erabilera hizkuntza izatea dela.

— Erdara beraz, zerbitzu hizkuntza gisa ulertzea iritsi beharko dugu, ahal den kasu guztietan euskara lan hizkuntza izan dadin lortuz.

B). HIZKUNTZ PAISAIA:

Leku publikoetako idatzizko erabilpena bermatu egin beharko litzateke eta «hizkuntz paisaia» euskalduna eskaini bisitariari, zonaldean sartu orduko, euskaraz mintzo den zonalde batean dagoela garbi ikus dezan. Ahalegin berezia egin beharko litzateke errotulazioan eta eskaintzen diren zerbitzuetako ahoz nahiz idatzizko harremanetan (Turismo Bulegoak berak, ostalaritza, establezimenduak,...): menuak, foiletoak, harrera...

Ahozko erabilpenari dagokionez, berau sustatzen den neurrian (batez ere haur eta gazteen artean) errealitate soziala ere eraldatu egingo da eta errealitate horrek sortaraziko du imajin euskaldunagoa.

Bertoko kulturarekin eta jendearekin harremanak nahi dituenak oso bes-telako giroa aurkituko du, errealitatea euskalduntzen doan neurrian.

Nik neronek ezagututako adibide batzuk jartzearren, ez da gauza bera Tarragonara joan eta kanpinean errotulazioa eta ohar guztiak katalanez

aurkitzea (Katalunian sentitzen zara), edo eskualde bereko hainbat kanpin eta hoteletan gertatzen den bezala, katalanerazko inolako arrastorik ez aurkitzea, ez ahoz eta ez idatziz (ez dakizu Katalunian edo Alemaniako kolonia batean zauden).

Ezin dugu ahaztu, gutxi izan arren, gero eta gehiago direla Euskal Herri-
tik kanpo euskara, bertako turistaren erakarpen-elementu gisa darabilten establezimendu eta turismo eskaintzak: Pirinioetan, edo turista euskaldun asko dabiltzan lekuetako denda turistiko batzuk. Nik neronek badut Estanbuleko bazar zaharreko dendari baten bisita txartela (biurriko formatoan) euskara hutsez.

D). HIZKUNTZESKAINZA, BESTE "BALIOKATE" EKINLOTU

Turismogune bakoitzak bere «baliokateak» ditu (leku bat aipatu orduko burura datozkigun «baliokak», hain zuzen ere). Zonalde honetako sustapen turistikoari begira garrantzitsua litzateke, euskararen garrantzi soziala azpimarratzea eta hizkuntzak turismo-faktore gisa zabaltzen dituen aukerak ikustaraztea.

Garbi gera bedi hala ere, aspektu hauek landu direla neurri batean zonaldean:

. «Ongi etorri. Hemen euskaraz bizi gara» liburuska argitaratu zen 4 hizkuntzetan, bisitariari bertako errealitate soziolinguistikoaren berri emateko.

. Bertizko Partzuergo Turistikoaren publizitatean euskararen presentzia bermatzen da.

Lehen urrats hauek hasitako bidean aurrera egitea eskatzen dute. Bide urraketa hori lagun dezaketen estrategia posible batzuk aipatuko ditugu ondoren:

ESTRATEGIAK:

A). Hizkuntz normalizaziorako ekinbideetan hizkuntzaren erabilpena (lan nahiz zerbitzu hizkuntza gisa) bermatzea:

- Turismoaren harrera eta informazio-zerbitzuetan.
- Leku eta eskaintza turistikoetan.
- Zerbitzuetan (bereziki ostalaritza eta osasun-zerbitzuak).
- Erabilera publikoan, ahoz nahiz idatziz.

B). Euskarazko ekintza eta iharduerak sendotzea, eta berauek gizarteratze bideak ongi lantzea:

- Daudenak sustatzea.
- Adin eta interesgune berezituari zuzenduriko kultur emankizun eta eskaintza berezien lanketa.

«Ahozko erabilpenari dagokionez, berau sustatzen den neurrian (batez ere haur eta gazteen artean) errealitate soziala ere eraldatu egingo da eta errealitate horrek sortaraziko du imajin euskaldunagoa»

«Zonalde hauetako turismo politika lantzerakoan beraz, guztiz garrantzitsua izango da, landu nahi den turismo-ereduaren eragin kulturala ongi neurtzea, eta zonaldeak landu nahi duen imajin linguistikoa eta eskaintza kulturala ere perspektiba horretan kokatzea»

- Bertako usadio eta kultur aberastasunaren erakustaldiak.
- Euskarazko irratien publizitatea bisitari euskaldunei eta erdaldunei (musika)
- Kultur produktuak: liburuskak, bideak, CDrom-ak, jokoak, elastikoak...
- Hau guztia PROGRAMAZIO LANDU batean bildu beharko litzateke, anagrama, slogan eta guzti.
- C). Kultur azpiegituraren sendoketa:
 - Kultur azpiegitura sendotu egin beharko litzateke.
 - Euskal ekoizpen kulturalaren bilgune indartsua sor daiteke, Nafarroa osoari begira. Euskararen hedapenerako gunea sortu, eratu edo egokitu.
 - Bertako kultur, usadio eta ohituren erakusleku iraunkorra (bertoko nahiz kanpotarrentzat).
 - Haur nahiz helduen euskalduntze prozesuak sendotzeko, edo/ eta euskalduntze programa bereziak bultzatzeko (familiak, kuadrilak...) eskaintzen lanketa.
 - Aipatu berri ditugun estrategia hauen bidez, honako helburuak marka daitezke:
 - Zonalde hau Nafarroako «gune euskalduna» izanik, trataera berezia eskatzea.
 - Martxan dauden ekinbideak bultzatu eta indartu, berriak sor daitezen bideak erraztuz.
 - Zonaldea, Nafarroako euskarazko kultur ekoizpenaren gunerik garrantzitsuenetako bat bilakatzea.
 - Zonaldearen kultur bizitasunaren oihartzuna, Nafarroako eta Euskal Herriko beste zonaldeetara ere zabaltzea.
 - Haurrak euskalduntze-prozesuan dituzten familiendako aukera bereziak eskaintzea.
 - Euskaltegietako ikasleentzako aukera paregabea.
 - Denboraldia euskaraz pasatzeko leku eta zerbitzuak.
 - Gure kultur ondarea ezagutzeko aukera polita.
 - Euskarazko kultur emankizunak jarraitzeko aukera.

VII.- AMAIERA GISA

Zonalde hauetako turismo politika lantzerakoan beraz, guztiz garrantzitsua izango da, landu nahi den turismo-ereduaren eragin kulturala ongi neurtzea, eta zonaldeak landu nahi duen imajin linguistikoa eta eskaintza kulturala ere perspektiba horretan kokatzea.

Barne nahiz kanpo turismoari begira, zonaldearen ezaugarri linguistiko eta kulturalak zainduko dituen eta aldi berean bisitariari eskaintza erakar-
garria luzatuko dion planteamendu turistiko eta kulturala landu daiteke.

Garbi dago, gure nortasun linguistiko kulturala behar bezala errotzen ez
badugu, turismoak ezaugarri horiek fagozitzeko arriskua dagoela. Plan-
teamendu egoki batek ordea, berauek indartzeko, eta berezko baliabide
ekonomikoak sortzeko aukerak eskain ditzake.

**«Garbi dago, gure
nortasun linguistiko
kulturala behar bezala
errotzen ez badugu,
turismoak ezaugarri
horiek fagozitzeko
arriskua dagoela.
Planteamendu egoki
batek ordea, berauek
indartzeko, eta berezko
baliabide ekonomikoak
sortzeko aukerak eskain
ditzake»**